

Saez eta Gomez gazte lapurtarrek tortura eta mehatxuak jasan dituztela salatu dute

Espainiako Poliziak Irunen atxilotu eta bost egunez inkomunikatuta eduki zituen

Hur Gorostiaga / Baiona

Arkaitz Saez eta Aratz Gomez Hiriburu eta Azkaineko gazteak atxilotu zituztenean Espainiako Poliziak torturatu eta mehatxatu egin zituztela salatu dute Sustengu Komiteek. Biak Euskal Herriatzea galdegiteaz gain, atzo 15 egun gose greban bete zituen Daniel Dergi hiriburutarri sustengua adierazi zioten.

ARKAITZ SAEZ eta Aratz Gomez iazko azaroaren 16ko gauean atxilotu zituen Espainiako Poliziak, Irunen (Gipuzkoa). Hiri-Buruz Hiriburuko Sustengu Komiteak eta Orduan Azkaingoak, bi lapurtarren lekukotasunetan oinarrituz atzo salatu zuten, «has-tapenetik, mehatxu eta tratu txarrak» jasan zituzten.

Irungo aparkalekuan, 20 polizia inguraturik, autoko leihoa hautsi eta Saez «ileetatik tiratuz leihotik atera zuten». «Lurrean ostiko eta fusilaren kulatarekin joka» aritu zirela salatu zuten. Komisarian, berriz, zaplastakoak, barrabiletan ostikadak, burdinazko makila batekin kolpeak eman zizkietela, eta heriotza mehatxuak eta familiaren kontrako mehatxuak eta bertze egin zizkietela salatu zuen Hiri-Buruz komiteak, Saezen lekukota-



Sustengu Komiteetako kideek eta bi gazteen abokatuak eman zuten atzo prentsaurrekoa.

sunean oinarrituz. Aratz Gomezek ere «kolpeak, tortura eta jipoi harrabotsekin presioak eta mehatxuak» jasan behar izan zituela azpimarratu zuten Azkaingo Orduan komiteko kideak. Sinatu beharrekoa eta epaile aitzinean deklaratu beharrekoa ere mehatxupean egin zutela azaldu zuten.

Zigor Reizabal bi gazteen abokatuak «Espainiako komisarietan torturatu egiten den frogatzea»

dela azpimarratu zuen. «Inkomunikatuta, bost egunez tortura basatiak jasan behar izan dituzte. Autoinkulpazioak mehatxupean egiten dira, eta bertze pertsonen kontrako akusazioak egiteko baliatzen dituzte poliziek, eta gero judizialki ere erabiliko dituzte», salatu zuen Reizabalek. Bi gazteak epaile aitzinean konfiantzako abokatuarekin egoteko aukera legezkoa dela adierazi zuen, baina abokatuak auzitegiko korrido-

reetan ere egotea debekatzen dietela salatu zuen. «Polizia, forentse eta epaileak tratatu txarren erantzule dira».

Egun Gomez Alcalako presondegian egonik eta Saez Valdemoron, Martutene, Langraiz, Iruñea edo Basaurira ekartzeko eskaera egin zuten. Ildo beretik, Daniel Dergi Osnyn dagoen preso hiriburutarri presoan Euskal Herriratzearen alde 15 eguneko gose greba bete duela nabarmendu zuten.

Jon Urretabizkaik jasandako «inkomunikazioa» salatu dute Elorrioko hainbat taldek

Erredakzioa / Donostia

URTARRILAREN 3an atxilotu eta 7an Entzutegi Nazionalako epailearen aurretik pasatu zuten arte, Jon Urretabizkaia gazte elorriarrek jasandako «inkomunikazio egoera» salatu zuten atzo Elorrioko EHK, Amnistiaren Aldeko Batzordeek, Gazteak eta haren senideek.

Urretabizkaia poliziaren eskuetan egon den bost egunetan «bahituta eta indefentsio egoeran» izan zela adierazi zuten: «Egun horietan ez dugu jakin non egon den, eta kartzelan sartu arte ezin izan du konfiantzazko abokaturik ikusi. Ondorioz, lehen egunetan jipoiak jasan behar izan ditu».

Bestalde, Madrilgo Entzutegi Nazionalera joandako lagun eta senideak, autobusean bueltan zeto zela, harriatu egin zituztela salatu zuten. Bestalde, Madrilgo Elkartasun Talde bateko kideak adierazi zuten elkartasuna «bihotzetik eskertu» zuten.

Azken hilabeteotan, Durangaldean «espezio egoera» bizi dutela gaineratu zuten —«Guardia Zibilaren kontrolak, jazarpenak...—, eta egungo gatazka egoera gaintzeko, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko elkarlana «beharrezkoa» dela azpimarratu zuten.

txostena

Arkaitz Saezen lekukotasuna

Arkaitz Saezek atxilotu zutenean eta komisarian jasotako tratua gainean eginiko kontakizuna:

20:30ak: Atxiloketa garaia

Espainiako poliziek atxilotu gintuzten, gure zain zeunden. Oso modu bortitzean atxilotu gintuzten. Kotxe barruan geunden ni eta nire kidea; nire aldeko kristala puskatu zuten; leihotik bertatik atera ninduten eta konturatzerako lurrean nengoen, eskuburdinak jantzita, inguruko poliziak ostikoka eta fusilaren kulatarekin buruan joka nindutela.

Ileetatik tatarastaka, Poliziaren kamioneta batean sartu ninduten eta bertan nengoela, jaso nuen kolpeetako baten ondorioz, konortea erdi-galdurik geratu nintzen, Donostiako komisariara iritsi arte. Burua kamionetako lurraren kontra neukan, eta

altxatu nindutenean komisariara sartzeko, konturatu nintzen odol putzu handi batetik altxatu nindutela.

21:00ak - 08:30ak: Donostiako komisarian

Gela txiki batean sartu ninduten. Zaplastako batzuk eta barrabiletan ostikada batzuk jaso nituen; esaten zidaten isilik jarraitzen banuen autoan itzuli bat ematera joango nintzela berarekin eta arbola baten pean utziko nindutela bi tiro sarturik, inork ez zekiela atxilotuta nengoela eta ez zela inor konturatuko, neure buruaz beste egin nuela pentsatuko zuela jendeak.

Gero haietako batek pistola bat hartu eta buruan jarri zidan, tiro egingo zidala esanez, noizean behin pistolaren kulatarekin jotzen ninduen, eta geroxeago ahoan sartu zidan, orduan beste poliziek alde egin zuten handik, ikaratuta baleude bezala, eta ni gelditu nintzen han, pis-

toladunarekin bakarrik, niri beldur gehiago sartzeko edo.

Handik pixka batera ateratako poliziak berriro sartu ziren, deskarga elektrikoak emateko aparatuen batekin, eta horrekin mehatxatzen ari zirenean beste polizia bat sartu zen zintzoarena egiten, eta beste gela batera eraman ninduen, ni salbatzera etorri izan balitz bezala.

Ez nuenez ezer esaten besteak sartu ziren. Biluzi egin ninduten, eta barrabiletan ostikada bat eman ondoren belauniko jarri ninduten (kolpeak eta zaplastakoak etengabe jasotzen nituen eta ez nituen gehiago sentitzen, baina barrabiletak ostikadak bai sentitzen nituela).

Eta makila edo burdina bat oihal batekin estalirik bizkarrean jotzen ninduten. Hasieran ez zen hain izugarria, baina gero arnasa hartzeko ere zailtasunak nituen, ezin nuen arnasa ongi hartu.

Mehatxuak ere etengabeak ziren, mendira eraman eta tiroz hilda

han utziko nindutela, ama eta arreba bertara ekarriko zituztela jipoitze, bortxatzeko...

Goizaldean auto batean sartu ninduten, eta esaten zidaten nire ordua iritsi zela eta hil egin behar nindutela. Ez zidaten esan Madrilerara gindozela. Ez zidaten lo egiten uzten, loak hartzen niduen, baina kolpeka esnatzen ninduten. (Bidean zehar)

Denboraren nozioa galdurik

Sekulako logurea neukan eta ez zidaten lo egiten uzten. Poliziek deklarazioa hartu zidaten eta lo egiten utziko zidatela esan zidaten, baina lotan hasi orduko beste polizia batek esnatzen ninduen, eta berriz deklarazio bera errepikarazten zidan hasi-hasieratik. Batzuetan hitz egiteko gai ere ez nintzen. Esaten zidaten beste bi atxilotuek sekulakoak esan zituztela niri buruz eta ez banuen ofiziozko abokatuaren aurrean deklaratzeko denegatik ordaindu beharko nuela.